

Arrasate

1996ko
Ekainak 7
323. zenb.

UP R E S S

Udal
96
Aurrekontuak

ELKARRIZKETA

Montxo Jimenez

IKUSPEGIA


Jose Mari Astigarraga

KULTURA

Brass musika taldea

Arrasate Rugby Taldea

25 urteko historia



ALTZARIAK
Berango

ERAKUSKETA
Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE Tfnoa: 79 01 92



**SUKALDE ETA
BAINURAKO
EKIPAMENDU
OSOA!**

Berango altzarien erakusketa aldatu dugu, eta orain bainu altzariak neurrira. Zeure gustu eta beharretara egokitutako diseinu eksklusiboak egiten ditugu.

Eta gogoratu, Berangon egiten dizugun sukaldea, zeure nortasunarekin bat dator, guztietatik desberdina, ez duzu antzeko bat topatuko, ez dago besterik.

CF
CARRERA

FAGOR

aspes

DeLonghi

I
R
T
A
B
E
R
N
A
T
I

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Zer idatzi? Zer egin?

Astlehena. Arrasate Press, nere txanda. Ez dut ezertarako gogorik. Zer idatzi? Loak edo... nahigabekak bere zurrumbiloen narama. Ez, ez da galbana, edo Bergarako gaupasaren resaka, ez, ez bainaiz Bergaran egon.

Goiz erretiratu nintzen eta nahiko lo eginda gaur jaiki. Hala ere, triste nago, nahigabeturik, ezinean bezala. "Pekatu" handi bat egin nuen atzo: Euskalerriaz nire lagunekin mintzatu, eta nazkatuta zeuden batzuekin eta besteekin: "ya está bien", "joan daitezela denak pikutara", "utz nazatela pakean", zioten, "yo paso".

Beste "pekatu" bat ere egin dut jaiki orduko: periodikua irakurri. Denean burruka, gezurra, biolentzia biolentziaren aurka, ekintza eta hizkuntza bikoitza, engainakorra, etikarik gabea, Espainiaren defentsan eta izenean dena justifikatu: "terrorista horiei leña, kartzela, justizia, heriotza". Eta gutxi balitz, etxe barruan: mehatxuak, txikiketak, traidor, asesino,

eta horrelako lore politak, sufri dezatela, gogor, presioa egin dezagun, beldurtu daitezela, eta abar eta abar, eta segi Herria zatitzen, nekatzen, akitzen. Euskalerrri, gizarajoa! batzuk eta besteek astindua, noiz arte?

Irakurtzen dut idatzitakoa. Tremendo. "Ezabatu zak hori eta itzali ordenadorea. Baduk oraindik denbora beste artikulotxo bat idazteko. Bihar edo aterako zaik beste zerbait optimistagorik. Gainera... ez dakit, ez dakit... ez duk guztien gustoko izango eta... hobe duk..." dio nire barrenak.

Bainan zeren beldur naiz? Ez nago ba herri libre batean? Ez al dut bada eskubi-dea nere sentipenak azaltzeko? Ez gaude ba herri tolerantante batean? Behar bada ez, baina... horrela atera zait eta aurrera, horrela doa. Ez al nuen bada atzo Pentekostes eguna ospatu eta Izpiritu Santuaren indarra eta ausardia jaso? Ba... bale.

SAGARRAGA, JOSE MARI ASTIGARRAGA

Oharra


Argi dagoenez, Jose Mari Astigarragak artikulua joan den astean argitaratuko zelakoan idatzi zuen.

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailean laguntza jaso du

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa:
79 26 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

UrIBE AUZOA
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

.....
Itoiz dela eta

Itoizko urtegiaren aurka solidarioek burututako ekin-tzarekin adostasuna agertze-ko gutun bat jaso dugu. Honek eztabaida txiki bat sortu du juntaren barruan eta horren ondorioz bere iritzia kaleratu nahi du Besaide Mendizale Elkar-teak.

Alde batetik, nahiz eta gai polemiko bat izan, ekintza baketsu eta publiko hori txalotu egiten dugu, eta salatu, lotsagarria eta onartezina iruditzen zaigulako, gazte hauek atxilotu aurretik jaso zuten jipoa eta oraindik gaur kartzelaratuak jarraitzea.

Beste alde batetik argi eta garbi utzi nahi dugu Itoizko urtegiaren aurka gaudela, oinarritz gure zaletasuna aurrera eramateko leku zoragarri bat birrintzen duelako. Kontraktotasun hau areagotu egiten da horrelako obra bat aurrera eramateko estudio serio bat ez dagoenean, bere helburuak nahiko ilunak direnean edo eta bere inguruan ustelkeria sortzen duenean.

Baina hau akabua da, auzitegi nazionalaren epaia obra ilegala dela esaten duenean, eta obrak gelditzeko ezer ez dela egiten ikusten dugunean.

Bide batez obra faraoniko hauetaz erreflexio apur bat eskatuko genioke jendeari (ez ahaztu oso hurbilean tokatuko zaigula laster). Ekologiarekin eta ingurugiroaren errespetuarekin bat al datoz? Benetan beharrezkoak al dira?

Bukatzeko, zapatuan hilak 8 urtegiaren aurka Iruñean egingo den manifestazioan

parte hartzera animatu nahi dugu jendea.

**BESAIDE MENDIZALE
ELKARTEA**

.....
**Zuzendari
agurgarri hori**

Ni hamar urteko mutiko bat naiz eta futbitoko ekipo baten jolasten dut. Nik bezala beste mutiko askok jolasten du astero Makatzenan eta Santa Teresako ikastolan. Eki-pio izenak hauek dira: Cucurucitos, Pedruscos, Onenak eta abar. Nik, beste mutiko batzuek bezala, ARRASATE PRESS irakurtzen dut astero eta Uribe Auzoko eta Zaldibarko txapelketen emaitzak agertzen dira. Horregatik nire proposamena hau da:

Makatzenako eta Santa Teresa ikastolako txapelketaren emaitzak agertzea ARRASATE PRESSEN, gure ligaren emaitzak jakiteko.

Ez dakit posible izango den baina gustatuko litzaidake proposamen honen erantzuna edukitzea.

Besterik gabe, eskerrik asko eta beste bat arte.

MARKEL LASAGA ETXAGIBEL

Zuzendariaren oharra

Sentitzen dut Markel, baina herrian gertatzen den guztiaren berri emateko eragozpen pare bat daukagu ARRASATE PRESSEN: alde batetik, ez dugula guztiaren berri izaten; bestetik, dena jakinda ere horren berri emateko gure aldizkariak 36 orrialde besterik ez dituela. Dena den, Markel, eskerrik asko zure kezka agertzeagatik eta asteroko irakurle izateagatik.

**Gutunen
araudia**

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inizialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guz-tiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiazta-tzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adie-razi beharko du bertan. Telefo-no zenbakia nahikoa da

Nola prestatzen dituzu azterketak?



Pili Elvira
(19 urte)
Ikaslea

Arratsaldean liburategira joaten gara 4etatik 8etara eta goizez Eskola Politeknikakora joaten gara, 9etatik 12etara, horrela egunero. Urte osoa pasatzen dugu horrela. Ez dugu ezer berezirik hartzen, baina jalea hartzeko esan digute.



Olaia Saldaña
(16 urte)
Ikaslea

Normalean azken egunean prestatzen ditut, baina azken aldera aste bat aurretik edo hasten naiz.




Unai Baena
(18 urte)
Ikaslea

Txuletekin. Azken egunean ikasten dut normalean. Ez, ez dut ezer berezirik hartzen.




Andoni Mendoza
(18 urte)
Ikaslea

Egunero ikasten dut zerbait. Txuletak? noiz behinka. Lehen gaupasak eta egiten nituen, baina orain ez.



Eduard Aguado
(24 urte)
Ikaslea

Normalean dena azkenerrako uzten dut. Ez dut ezer berezirik hartzen, kaferen bat asko jota.




Mikel Luri
(18 urte)
Ikaslea

Gehienetan azken astean edo hasten naiz ikasten, egunero ez. Noiz behinka egin izan ditut txuletak, baina gero erabili ez.



Itziar Zabala
(15 urte)
Ikaslea

Azkenengo egunerako uzten dut beti. Lehen egiten nituen txuletak, baina orain ez.



Iraila Urrutia
(14 urte)
Ikaslea

Kuartoan sartu eta ikasten jartzen naiz, baina bakarrik azterketak daudenean, bi egun lehenago gehienetan.

ROBERTO ZABALA ETXENAGUSIA

- Azaleko gaixotasunak
- Dermatokosmetika eta Benereologia

(Lagun-Aro)

KONTSULTA
BERRIA!

MENDIA JAUREGIA-INSTITUTU MEDIKUA
Erdiko Kale, 22-1. ARRASATE Tfnoa: 79 72 16

BITXI
LANTEGIA

Oskar Vitoria

ZURE
GUSTOKO
BITXIAK!

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan) Tfnoa: 77 01 44 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (lberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 7
 Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Larunbata 8
 Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Igandea 9
 Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Astelehena 10
 Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola. Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.

Asteartea 11
 Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguín. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Asteazkena 12
 Gaueko 10ak arte: Amezuza. Santamaina. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

Osteguna 13
 Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

7 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Esperando un respiro" 7etan eta 10etan.

• **BERTSOLARIEN TXAPEL-KETA**
 Euskal Herriko bertsolari gazteen txapelketako finala Amaia antzokian arratsaldeko 7etan.

• **NAGUSIEN ASTEA ITURBIDE EGOITZAN**
 Arratsaldeko 6etatik 7.30etara Arrasate Musikal eta Tunaren emanaldia.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 Donostiako "Señor No" eta Urretxu-Zumarragako "Hot Dogs" taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9etan.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Aretxabaletako Kurtzebarri eskola eta Erguín eskolak gimnasia erritmikoa erakusketa egingo dute ekainaren 14an Erguín herri eskolan arratsaldeko 6etan.

DANTZARI EGUNA

Urtero moduan Haur dantzari eguna ospatuko da ekainaren 16an Arrasaten. Dantzari asko etorrikoenez norbaitek egun horretan bere etxera dantzari txikiak gonbidatu nahi baldin baditu izena eman dezake HIRE liburudendan edo AEDn. Lore Gazteak eta Txikitxu taldeek antolatuta.

EAJ-PNVren HITZALDIA

Ekainaren 14an arratsaldeko 7etan Batzokiko hitzaldi aretoan hitzaldia. Hizlaria: Jose Juan Gonzalez de Txabarri. Gaiak: PP eta EAJren arteko paktoa eta GAL auziaren ikerketa. Hitzaldiaren ostean afaria izango da. Arrasateko EAJk antolatuta.

8 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Ace Ventura" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **RUGBY NEURKETA ATXABALPEN**
 Euskadiko rugby selekzioa eta Bordeleko Begles taldea aurrez aurre, arratsaldeko 5.30etan Atxabalpeko zelaietan.

• **ORGANU EMALEAK**
 Alcer elkartekoak arratsaldeko 7etatik 9.30etara Seberon izango dira bazkide berriak egin eta informazioa emateko.

• **MANIFESTAZIOA IRUÑAN**
 Zutik-ek autobusa antolatu du Iruñan egingo den manifestaziora joateko. Manifestazioa litoitzekiko elkartasuna taldeko kideen askatasuna eskatzeko egingo da. Autobusa arratsaldeko 4etan Garibaitik irtengo da. Izene-matea Jaizalen egin daiteke.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 Sabot eta Belly button taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9etan.

• **IZASKUN MURGIAREN OMENEZKO KONTZERTUA**
 Arratsaldeko 7.30etan Amaia Antzokian. Goikobalu abesbatza eta Arrasate Musika-leren eskutik.


9 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Ace Ventura" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Deskarga gaina, Idiazabal, Etxegarategain, Altsasu, Zalduondo, Landa eta Arrasate. 117 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrendik.

• **MEZA ETA JURNARTZEA**
 San Juan Bautista elizan jaunartzeak 12.30etako mezan.

• **NAGUSIEN ASTEA ITURBIDE EGOITZAN**
 Goizeko 10etan meza egoitzako kapilan. Bertan San Viator ikastolako abesbatza izango da.



ARRASATEKO TOPONIMIA LIBURUAREN AURKEZPENA

Jose Luis Ormaetxea, Txipiren liburuaren aurkezpena ekainaren 14an ostirala, Udaletxean eguerdiko 12.30etan.

10 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Ace Ventura" 7etan eta 9.30etan.

11 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Ace Ventura" 7etan eta 9.30etan.

• **EMAKUMEA ETA HIESA**
 Hizlariak: Mauricio Urtubi, Sabina Melchor eta Domi Korta. Arratsaldeko 6etan Musa-kolako Herri eskolan.

12 ASTEAZKENA

• **HITZALDIA FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUAN**

Gaia: Ekologia, hurbiltze bat. Arratsaldeko 5etan Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan

• **EMAKUMEA ETA HIESA**
 Hizlariak: Mauricio Urtubi, Sabina Melchor eta Domi Korta. Arratsaldeko 6etan Erguingo Herri eskolan.

• **ELKARRIren HITZALDIA**
 Gaia: hitz hutsak baino gehiago... Euskal herrian bidezko bake-prozesu baterako". Hizlaria: Juanjo Perez. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Eskoriatzako Museo eskolakoek antolatutako erakusketa ekainaren 7tik 13ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

KANPOKO LOREN APAINKETA

Ibai Arte elkarteak kanpoko loren apainketa IV. lehiaketa antolatu du. Ez da beharrezkoa izena ematea. Saria emateko orduan bal-koi, miradore eta leihoetako edertasuna eta barietatea hartuko da kontuan. Parte hartzeko epea uztailearen 19ra arte egongo da zabalik. Hiru sari banatuko dira: lehenarentzat 35.000 pta., bigarrenarentzat 25.000 pta. eta hirugarrenak 10.000 pta. jasoko ditu.

13 OSTEGUNA

• **ZINE KLUBA**
 "Clerks" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Sarrera 400 pta eta gazte txartelarekin 350 pta.

• **EMAKUMEA ETA HIESA**
 Hizlariak: Mauricio Urtubi, Sabina Melchor eta Domi Korta. Arratsaldeko 6etan San Andresko Herri eskolan.

ARABA EUSKARAZ 96

Amurrión ekainaren 16an ospatuko den Araba Euskaraz-era joateko AEDk autobusa antolatu du. Autobusaren prezioa 1.000 pta. eta txartelak Hire liburudendan edo Iturriotzen eros daitezke ekainaren 14a baino lehen

EGUZKITARAKO JANTZITA



GIULIO TABACCHI

Eguzki betaurrekoen bilduma berria

Estilo berri bat heldu da. Estilo ausarta, bakana, desberdina.

Eguzki betaurrekoen diseinu deigarria, lotsarik gabeko jendearentzat.

MultiOpticasen Giulio Tabacchiren bilduma berria da. Gainera, nahi baduzu, graduatzen dizkizugu. Zatoz eta jantzi zaitez eguzkitarako.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
 Ibargaray, 16 • BERGARA
 J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR


Eguzkietako betaurrekoak erostegatik kamiseta eksklusiboa oparituko dizugu!!!

Hirukoaren aurrekontuak onartu

EAJren, EAren eta PSE-EEren aldeko 12 botorekin, joan den ostiraleko plenoan onartu egin ziren hirukoak egindako aurrekontuak. Hirukoak ez zuten HBk eta EBak aurkeztutako emendakin bakar bat ere onartu. Garatu nahi dituzten proiektuen defentsa egin zuen gobernu taldeak emendakinen bidez. Hirukoak, berriz, ez zuten euren aurrekontuen inguruko azalpenik eman. Ignacio Jimenok, sozialisten bozeramaleak, gehiengo izango duen gobernuaren eratzeko gai izan ez denez, HBk porrot egin duela esan zuen. EBko Joseba Ugaldek, alkatea aukeratzeko egin zen plenoan hirukoak ez zuela ados jartzea lortu eta porrota hirukoarena dela erantzun zuen.

Arrasate Eudiman

HBren, EAren eta EBaren aldeko 11 botoei esker Arrasateko Udala Eudimako partaidea da ostiralaz geroztik. Euskal udal intsumituen mankomunitatean sartzearen



Atxilotu deklaratzera eramateko

Joan den ostiral goizean Ertzantzak alkatea atxilotu zuen Udaletxeko arkupetan, eta Bilboko Auzitegi Nagusira eramán zuten deklaratzera. Xabier Zubizarretak ez zien epaileak egindako galderei erantzun, baina bere jarreraren zergatia jakinarazi zion. Ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia plenoan hartu zenez guztiz demokratikoa dela, eta arrazoi horregatik epaitzeak zentzurik ez duela esan zion alkateak. Ostiralekoa hasieran egin beharreko diligentsia izan zen, eta aurrerago epaitu egingo dute. Alkateak esan zuenez, ministeritza fiskalak ez du oraindik zigorrik eskatu baina seguruenik kargu publikoak betetzea debekatuko diote.

Ostiral eguerdian manifestazioa egin zen herrian alkateari elkartzesuna adierazteko.

aurka bozkatu zuten PSE-EEko eta EAJko zinegotzietatik. J.M. Loitik, EAJren bozeramaleak esan zuenez, intsumisoaren alde daude baina gai hori EUDELeke eraman dezakela uste dute.

PSE-EEko bozeramaleak, Ignacio Jimenok, Argentiariaren eta Inem-en aurkako erasoak gogoratu eta biolentzia guztiak ez direla berdín salatzen esan zuen. Jimenok tolerantziaren

aldeko mozioa aurkeztea proposatu zuen.

Antzerkia bikain

Pozik atera ziren ostiralean Ur taldearen obra ikustera joan zirenak. Antzerki taldeak Shakespearen *Romeo y Julieta* obraren moldaketa modernoan egin du, eta ikusleen iritziz moldaketa oso ona izan zen. Ikusleen kopuruari dagokionez, antzoki erdi bete zen.

JAIOTZAK

- Mikel Bedía Lorenzo. Maiatzaren 23an.
- Naiara Moreno Maroto. 25ean.
- David Martínez Muñoz. 25ean.
- Libe Alvarez Elola. 30ean.

EZKONTZAK

- Jose Antonio Martínez Iglesias eta Teresa Bellón Torres. Maiatzaren 25ean. Zibilez.
- Juan Ignacio Aranburuzabala Fernandez de Aroibe eta María Nieves Nieves Kobia. Ekainaren 1ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- María Basterretxea Bilbao. Maiatzaren 27an. 83 urte.
- Felipe Domínguez Barbero. 30ean. 81 urte.

HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK, 3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTER

A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errententziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukerari batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri ziteza dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74



* Pilar Sanchez

Eskerrak organu emaleei

Bigarren aldiz erditu eta gero, 1978. urtean, guntzuruntan polikistek aurkitu zizkidaten (ez zenbiltzan behar zuten moduan). Hori dela eta 1985. urtean hemodialisi tratamenduan jarri behar izan nuen. Bi urte pasa nituen era horretan, gaixotasuna sendatu barik, transplantea egin zidaten arte. Nire bizitzako bi urte hauek oso gogorrak izan ziren eta oso luzeak iruditu zitzaizkidan, nahiz eta egunen batean niretako guntzurrun bat egongo zenaren itxaropena sekula galdu ez. Ahaztezina da egun hura. 1987ko irailaren 29an telefonoz deitu ninduten esateko emale baten guntzurruna bat zetorrela niri egin zizkidaten frogen emaitzekin. Ospitalera hainbat eta

lastarren joateko esan zidaten.

Hasieran ez nekien zer egin, zeren eta hainbeste denboran itxaroten egon nintzen ueña iritsita, tokiz kanpo aurkitzen nintzen, urduri... ezer ez nuen garbi. Dena den azkar joan nintzen ospitalera.

Denborak aurrera egin ahala, gero eta urduriago nen-

.....

“Transplantea egin zidaten egunetik bizitza berri bati ekin nion... bere organuak ematen dituen jendeari esker”

goen, baina dena bukatu zenean konturatu nintzen pena merezi zuela eta beste era batera ikusi nituen gauzak.

Transplantea egin zidaten egunetik bizitza berri bati ekin nion. Eta guzti hau bere organuak ematen dituen jendearen elkartasunari eskertu behar zaio. Nire bizitza aldatu egin zen, alde desberdinetatik ikusita gainera: denbora gehiago nuen, eguneroko dialisi tratamendurik egin beharrik ez nuelako, eta apetitoa berreskuratu nuen. Orain askatasun handiagoa daukat, bidaiatzeko aukera dudalako. Lehen ezin nuen horrelakorik egin, tratamendua eguneroko hartu behar nuelako eta ez zelako posible edozein tokitan egitea (etxean egin arren, garbitasun neurri handiak beharrezkoak dira).

Orain bizitzaz gehiago gozatzeko aukera daukat, eta dena baikortasunez ikusten dut, nahiz eta jakin erretxazoaren aukerak hor daudela beti.

* ALCER-EKO KIDEA

USTEAK USTE

Presoen hurbilketa dela eta, makinatxo bat eztabaida, alde eta aurkako argudioak barne; hainbat bilera, politikari eta politikariak ez direnen artean; egunkari eta telebistetako albistegietako ia eguneroko gaia... baina aurrerapausorik ez.

Badirudi Gobernuak garbi duela zerbait erabaki behar duela, azken urteotako sakabanaketa politikak ez duelako espero zuten emaitzik eman. Baina euren ikuspuntutik egiten duten azterketak ez die gauzak asko argitzen, hau da, presoak Euskal Herrira ekartze horrek, ETArean aurkako borrokan Gobernuaren alde jokatzeko du, edo alderantziz da? Eta horrelako planteamentuak mantentzen diren bitartean ez gara ezertara iritsiko; eta horrelako planteamendutik abiatuz gero ez dugu konponbideruntz aurrerapausorik emango; bada zer espero genezake eurak egindako legeak betetzeko ere gauza ez direnengandik?

Guzti honen aurrean soberan daude aitzakiak: Jose Antonio Ortega bahituta dagoen bitartean ezin direla presoak honuntz ekarri (eta bahituta egon ez den hainbat urtetan?) edota arazo teknikoak daudela, mesedez! Izan zaitzete serioak, behingoz ez bada ere. Benetako arazoa ez al da izango borondate eza?

Bestela esango didazu, hainbat bilera eta eztabaida ondoren horra non formula magikoa asmatu dute Atutxa eta Mayor Orejak egindako azken bileran: hurbilketa selektiboa. Baina, mesedez! Ez duzue ezer berririk asmatu, aspalditxotik aplikatzen ari den gauza baita!

Ez al da arazoari zuzenean heltzeko ordua eta benetako konponbidea bilatzekoa?

Eta gainera eta guzti horren gainetik, hemen presoen eskubide bat, euren legeak babesten duen eskubidea, zapaltzen ari da, eta hori ere ahaztu behar ez duguna da.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16


**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50



Musakolan, A-20 arean kokatuko da hasiera batean Enpresa Berriendako Zentrua.

Uztailean era daiteke Enpresa Berriendako Zentrua

Atzo, ostegunean, bilera izan zuten Enpresa Berritzaileen Zentruko bultzatzaileek Arrasateko Udalean. Spri-ko, Diputazioko, MCCko, Udaleko eta beste enpresa txiki batzuetako ordezkariak bildu ziren atzo, lotu barik zeuden gaiak adostu eta zentruaren eraketarako data finkatzeko.

Xabier Zubizarretak adierazi bezala, arrazoi historikoengatik eraketa eguna uztailearen 4tik 7ra bitartean finkatzea proposatu behar zuten Udalak. Aurten 100 urte betetzen dira Arrasaten euskal jaiak ospatu zirela, eta egun horretan ekonomia bultzatzea helburu zuten ekimenak saritu ziren. Horregatik, 1896ko egun hura gogoratuz, EBZa ere ingurumaria horretan eratu nahi du Udalak.

Saiolanek EBZaren funtzionamendurako proposatu duen eredia ere mahaigainean jarri zen atzoko bileran, eta baita arlo ekonomikoarekin lotutakoak ere. Alkatearen berbetan, Saiolanek aurkeztu duen eredia nahiko onartuta dute gutziek. ATBn eginda-

ko adierazpenetan Zubizarretak esan zuenez, EBZa antolatzea ez da erraza izan eta eraketa luzatu egin da, baina gauzak ondo egin nahi izan dituzte.

Hirukoa ere bileran

Enpresa Berritzaileen Zentruaren eraketa gertutik jarraitu nahi du hirukoak, eta horregatik, asteartean bilera egin zuten EBZaren jarraipena egiteko eratu zuten batzordeak. Nahiz eta auzitegiak batzordearen iharduera bertan behera geratu behar zela esan, hirukoak errekurritu egin du auzitegiaren erabakia eta astean bilera egin dute. Ignacio Jimeno, batzorde horretako lehendakariak ziurtatu duenez, osteguneko bilera prestatzea izan zen eurak elkartzearren arrazoia. Atzoko batzarrerara joateko gonbitea Spri erakundearen bidez jaso dutela ere esan du. Jimenoren berbetan, behin EBZa eratzen denean, seguruenik batzordearen lana ere bertan behera geratuko da.

Intsumisioa atxilotu

Asteazken gauean X.A.Z. atxilotu zuten ertzaintzak Donostiako epaitegiaren aginduz. Intsumisioa delako eraman zuten arrasatearra Donostiako epaitegira.

AKEIra martxa

Asteazkenean Ingurugiroaren Nazioarteko eguna izan zela eta Langile Komisioak, EKIk eta ESKk Akeiko erraustegira martxa simbolikoa egin zuten. Ekintza horretan parte hartu zutenak oinez heldu ziren Akeira, eta pankarta batzuk eskegi zituzten erraustegiaren inguruko arboletan. Jesus Uzkudunek, Euskal Herriko CCOOren Ingurugiro eta Lan Osasunerako idazkariak ere parte hartu zuten ekintza horretan.

Alkatea ATBn

ATBko Alkatearekin Berbetan saioan izan zen Xabier Zubizarreta asteazken gauean. HBko ordezkariaren dimisioa eskatzeko egin diren adierazpenei erantzunez, dimititzeko asmorik ez duela esan zuten alkateak. Hirukoaren aurrekontuei dago kienez itxaropentsu azaldu zen, eta onartu ez diren dirulaguntza batzuk azkenean hirukoak onartu egingo dituela esan zuten. Urribarriko jubilatuen egoitza berritzearen alde azaldu zen alkatea, hori lortzeko ahaleginetan jarraituko dutela ziurtatuz.

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84



Jose Sarracabal

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 18 92




Obretan beharpen bereziak.
FAGOR altzarietan berriena.

Dena gertu Roneo bota eta Hiper Eroski eraikitzen hasteko

Urtea amaitu baino lehenago Hiper Eroski berriko atearak ireki nahi direnez, hile honetan Roneo botatzen eta Eroski berria eraikitzen hasiko dira. Eroskik eskatu du Arrasateko Udalean Roneo botatzen hasteko baimena, eta Udalak lanari ekiteko lizentzia eman dio. Eskabadoreen bidez 1964an eraikitako lantegia botako dute, seguruenik ekainaren erdi aldean.

Roneon eraikiko den Hiperrak 10.000 m² izango ditu, eta azalera horretatik 6.000 m² erosketetarako utziko dira. Hiperra ireki bezain laster egungo Maxia eraldatzen hasiko dira, hor zentru komertziala eraikitzeko.



Ekainaren erdialdean Roneo botatzeari ekingo diote.

Beraz, Hiperra eraiki bitartean Maxian egin ahal izango dira erosketak. Maxiaren eraldaketa 97aren lehenengo hiru hilabeteetarako bukatuta egotea espero da. Zentru komer-

tzian dandak jartzeko aukera izango dute inguruko merkatariek. Eroskiren asmoa, gune horretan era guztietako dandak jartzea da. Eroski berriari 650 autorentako tokia

ere izango da.

Proiektua bukatu arte inbertsioaren kopurua itxiko ez den arren, 1.000 milioikoa izango dela aurreikusi dute arduradunek. Hiper Eroski eta zentru komertzial berria eraikitzeak zuzeneko 50 lanpostu eta zeharkako beste 100 sortuko ditu arduradunen berbetan.


Hiper berriarekin Arrasate eskualdeko erosketak gunea izatea lortu nahi da. Era berean, inguruan bizi arren erosketak egitera beste toki batzuetara joaten direnak, hemen geratzera bultzatu nahi da. Gaur egungo Maxiak eskualdean dagoen eskariari aurre egin ezin diolako eraiki nahi da Eroski handiagoa.



LORAMENDIN

**Zure irteerak
prestatzeko
behar duzun
material
guztia.**





Antxon Garate eta Paco Alvarez, zuzendaritzako bi kide.

Dimititu egin du Uribarriko egoitzako zuzendaritzak

Asteartean egindako bileran dimisioa aurkeztu zuten Uribarriko jubilatuen egoitzako 10 kideek. Joan den ostiraleko plenoan, euren egoitza berritzeko dirulaguntzarik ez zuzentzea erabaki zelako hartu dute dimitzitzeko erabakia.

Dimisioaren berri emateko idatzian esaten denez, hirukoa osatzen duten zinegotziek ez dute egoitzaren arazoa konpontzeko borondaterik, eta egoitzakoak ez daude egoera honetan aurrera egiteko gertu. Gainera, gaur egun duten egoitzak beharrezko segurtasun neurriak betetzen ez dituzenez, hortik sor daitezkeen ondorioen jabe ez dutela egin

nahi adierazi dute.

Kargua utzi berri duen zuzendaritza Ongizate Saileko arduradunarekin, Joseba Ugalderekin, bilduko da egunotan, dimisioa legaltasunaren barruan nola aurkez daitezkeen jakiteko. Dimititzeko erabakia gogorra ez ote den galdetzean, Antxon Garate, egoitzako lehendakariak esan du, "gogorrragoa dela gauden egoeran egotea".

Dimisioa aurkeztu arren, Uribarriko jubilatuen presioa egiten jarraitzeko prest daude. Horregatik, Uribarriko jubilatuen egoitza berritzearen aldeko sinadurak biltzeari ekingo diote.

Deportatu arrasatearra itzuli

Euskal Herrira itzuli diren hamar deportatuen artean, Jose Mari Pagoaga Gallastegi arrasatearra dago. Cabo Verdetik etorri da Pagoaga, emaztea duen Yolanda Berrueterekin batera. Baionako katedralean dago arrasatearra gainontzeko deportatuekin batera.

Lizentzia barik ez

Arrasateko Udalak hainbat jakinarazpen egin die Branka jatetxea zenaren lokalean biltzen diren emakumeei. Udalak obrarik egin behar badute edo elkarte moduan eratu behar badira horretarako lizentziak eskatu behar direla jakinarazi die. Emakumeek adierazi dutenez ez dute obrarik egiteko asmorik, ezta elkarte modura egituratzekorik ere. Musean aritzeko helburuz, 50 emakume Branka jatetxea zenaren lokalean hasi ziren biltzen orain dela gutxi. Orain arte Leintze elkartearen biltzen ziren musean jokatzeko afizioa duten emakume arrasatearrak. Joan den astelehenean lokalaren inaugurazioa egin zuten.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



San Viator ikastolako lehen mailako ikasleak urtero bezala, Barriara hurbildu ziren 3 egun igarotzeko. Abestuz, dantzatzuz eta jolas

eginez giro paregabean ederto pasa zituzten opor txikiak eta berriro esperientzia errepikatzeke desiatzen daude la jakin izan dugu.



Jai giroa, umore ona eta saltsa berezia izan zen protagonista **AEKanpada** egunean. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Dimara joandako guztiek primeran pasatzeko aukera izan zuten. Arrasateko AEKtik ere abiatu ziren AEKanpada, argazkian ikus dezakezuenez.



San Frantzisko Xabier ikastolako 5. mailako ikasleak Leonen izan dira aste betez. Eusko Jaurlaritzak, Madrilgo Hezkuntza Ministeritzarekin batera antolatutako Eskola ibiltariak proiektuan parte hartu dute, Ceuta eta Tarragonako taldeekin batera.



Arrasate kirol proiektuko neska-mutilek festa batekin eman zioten bukaera ikasturteari zapatuan. Goizeko 10etan bizikleta ibilaldia egin zuten Aramaiora baina

une gozoena eguerdiko 12etan izan zuten. Orduan proiektuan parte hartutako gazteek dominak eta sariak jaso zituzten. Sari ugari eta neskamutil asko opariak jasotzeko irrikan.



Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

**a s e s o r i a
ARRASATE**

**Orain, Erdiko kalean
gaude!**

Erdiko kalea, 32 - 1. 1
Tfnoa: 79 01 47
ARRASATE



Mondrako emakumeek San Vicente de la Sonsieran pasa dute asteburua. Urtero Errioxara joaten dira denboraldi bukaerako ospakizunak egiteko. Aurten ondo ospatzeko arrazoirik bazuten, bai horixe! Jokalariekin batera jarraitzaileak ere joan ziren eta primeran pasa dutela esan behar. Gainera Juanina Garai entrenatzailea ondo garbi etorri zela jakin izan dugu, Izan ere bere taldekideek herriko urtegira bota zuten. Paiten artean beste bat zirudien Juaninak.

Atzeratuek primeran eman zioten bukaera eurendako prestatuko asteari. Domekan egun borobila izan zuten goiz goizetik. Arratsaldea berriz, jai erraldoi baten murgilduta igaro zuten. Jolasak, dantzak, umore ona... denetarik egon zen eta atzeratuek ez zuten aukera galdu primeran pasatzeko.



IZEN PROPIOAK

● **Iñaki Zeziaga** 40 urteko arrasatearra Urola taldeko entrenatzailea izango da 96-97 denboraldian. Entrenatzaile lanetan esperientziadun gizona da: 3.mailako Mondran bi denboralditan izan zen entrenatzaile, jubeniletan hiru urtez eta preferente mailako UDAn beste bi denboralditan aritu zen.

● **Julio Galarta** margolari arrasatearrak "Avinyo 56" izeneko erakusketa jarri du Bartzelonako Arte Ederretako goi mailako eskolan orain 40 urte berarekin batera ikasketak bukatu zituzten beste hainbat artistarekin.

● **Eider Otxoa** 21 urteko atxabaltarra, Musakolako Gazte Txokoko dinamizatzaile berria da. Eiderrek graduatu soziala eta teknikari animatzaile sozio-kulturaleko ikasketak egin ditu. Gainera ATBko Barrelekaixoka saioaren aurkezlea ere bada



Joxe Gorosabel eta **Miren Muruamendiaraz** arrasatearrak maiatzaren 4an ezkondu ziren Arrasateko Parrokian. Ezkonbidaian Balira joan dira. Zorionak bikote!


EPELDE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA


UGARTE

AROSZTEGIA


Altzariak



Ateak



Leihoak



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean)

BERGARA

Tfnoa. eta faxa: 76 54 91

Zaldibarko Futbito Txapelketa

Argi Ibili...



txapelidun!

Pronostikoez ez dute huts egin. Argi ibilikoak finalean aurkariak baino hobeto ibili zirelako 6 eta 3 irabaztea lortu zuten. Antolatzaile eta jarraitzaileen esanetan azken

urteotako final onena jokatu zen zapatuan Zaldibarren. Talde bien arteko parekotasunak azkenera arte iraun zuen, gainera golak ere protagonista izan ziren eta horrek bere erakarga-

rritasuna eman zion neurketari. Kontuak kontu, Argi Ibili taldearen beteranotasuna eta joku ona nahikoa izan ziren 95-96 denboraldiko Zaldibar Txapelketa eskuratzeko. Zorionak!



Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?

OPEL 

TAKOLO AUTOAK


Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE



Adelaida Haizea eta Okoretegi tabernaren artean erabaki ziren 3. eta 4. postuak. Arratsaldeko 4etan hasi zen partiduan launako berdinketa nagusitu zen. Okoretegi tabernako golak Txomin, Antonek bi eta Jonek lortu zituzten. Adelaida Haizeako golegileak Juanjo eta Jon Madinabeitia izan ziren. Juanjok hiru bider zulatu zuen aurkariaren atea eta Jonek behin. Berdinketa hausteko luzapen minutuak jokatu ziren eta bigarren zatian Okoretegi Jonek garai-penaren gola lortu zuen.



Argi Ibili eta Cervecera Leintzek final handia jokatu zuten. Harmailak jendez beteta eta jokalaria urduri. Neurketa hasi bezain laster Cervecera aurreratu zen Ferminen sartutako golari esker. Mikel Hierrok bigarrena igo zuen markagailura. Argi Ibiliren txanda, bi gol jarraian: Txema eta Bunder protagonista. Lehen zatiko azken gola Fedek lortu zuen. Bigarren zatian Argi Ibiliko laugarrena Txemak. Cerveceriak aldea murriztu zuen, Nandori esker. Azken gol bien egileak berriro Txema eta Bunder izan ziren.



Sari banaketan ohiko opariez gain, Zaldibar txapelketako jokalar nabarmenek garaikur berezia jaso zuten euren

lana saritzeko. Sarituak honako hauek izan ziren: David Zaitegi eta Unai Idigoras Irati STS, Igor Carrillo DKB, David Martinez Kama-

sutra, Txema Naranjo Cerveceris Leintz eta Iñigo Agirre Aurrera Bolie. Finaleko jokalaria onena Argi Ibiliko atezaina, Pako izan zen.



Sari hunkigarriena Zaldibarko jokalaria izandakoen oroime-
nez senitarteko eta lagunek jaso zuten. Santi Boisa, Emilio Sagasta, Juan Garai eta Jose Antonio Bolinaga Zaldibarko laguneroime-
nean izan ziren finalean.

Udal Aurrekontuak

96

Berandu baina azkenean onartu dira 96ko aurrekontuak. Zenbaki guztiak ematea gehiegizkoa izango litzatekeenez, dirulaguntza garrantzitsuenenak jaso ditugu bakarrik. Kopuru horiek, gainera, borobildu egin ditugu sarrerak eta gastuak.

Aurten EAJk, PSE-EEK eta EAK egindako aurrekontuak onartu dira. Hiru alderdi horiek azaldu dutenaren arabera, gastuei eusten ahalegindu dira eta horregatik ohiko laguntzetan ez dute diru partida handitu. Bestalde, lur industrialaren erosteko beharra ikusi dutenez, horretarako nahiko kopuru handia zuzen-

du dute: 120 milioi. 96ko aurrekontuak joan den ostiralean egin zen plenoan onartu ziren. Herri Batasunak eta Ezker Batuak hirukoaren aurrekontuei egindako hainbat emendakin aurkeztu zuten, baina ez ziren onartu. HBk eta EBak bakarka aurkeztutako emendakinek ez zuten aurrera egin.

AURREKONTU OROKORRA

2.754.288.325 pta.

(laz baino 50.492.743 pta. gutxiago)

Sarrerak

• Zuzeneko zergak	569 milioi
• Zeharkako zergak	85 milioi
• Tasak, etab.	430 milioi
• Transferentzia arruntak	1.334 milioi
• Ondarezko sarrerak	30 milioi
• Inbertsioa errealak inorengatzea	50 milioi
• Kapitalaren transferentzia	34 milioi
• Finantz aktiboen aldaketa	10 milioi
• Maileguak	123 milioi

Gastuak

• Pertsonal gastuak	655 milioi
• Zerbitzu eta ondasunen erosketak	524 milioi
• Maileguen interesak	191 milioi
• Transferentzia arruntak	562 milioi
• Inbertsioak	602 milioi
• Kapitalaren transferentzia	78 milioi
• Finantz aktiboen aldaketa	10 milioi
• Mailegu amortizazioa	132 milioi

GOBERNU-ORGANUAK35.077.517

- Pertsonal gastuak30.540.517
- Funtzionamendu gastuak890.000
- Argitalpenak2.500.000
- Bidaiak147.000
- Transferentzia korronteak750.000

KULTURA ETA KIROLA397.168.650

- Pertsonal gastuak50.247.649
- Kultur ekintzak10.300.000
- Jaietako gastuak21.050.000
- Txikilandia2.390.000
- AUKEAren defizita83.260.000
- Kulturako dirulaguntza10.064.000
- Arrasate Musikaleko dirulaguntzak ..41.000.000
- AEDko ludotekarako dirulaguntza5.050.000
- Ospitala60.000.000
- Ferixalekuko frontoia50.000.000
- AUKEAren inbertsioak10.000.000
- Musakolako kiroldegiko hormigoi egit. ...20.000.000

HEZKUNTZA127.599.885

- Pertsonal gastuak16.548.885
- Ondasunak eta zerbitzuak 22.911.000
- Hezkuntzako dirulaguntzak8.300.000
- Herri ikastetxeen proiekturako dirulaguntzak.... 4.680.000
- San Frantzisko Xabier Ikastola18.160.000
- Umezaintza3.790.000
- Institutua4.000.000
- Almen1.940.000
- San Viator10.310.000
- La Merced4.960.000
- Hezkuntzako inbertsioak22.000.000
- San Frantzisko X. Ikas.-Ferixalekuko hitzarm. 10.000.000

FINANTZ ZORRA323.430.847

- Maileguren interesak190.992.768
- Maileguren amortizazioa132.438.079



GIPUZKOAKO KONTSEILARIAK

ASESORES DE GIPUZKOA

Zerbitzu fiskalak • Kontabilitatea
Zerbitzu laboralak • Auditoriak
Zerbitzu Juridikoak

Otalora Lizentziatua, 4 etxabea
Tfnoa: 79 93 11ARRASATE

OSASUNA215.841.639

- Pertsonal gastuak29.489.637
- Etxeko laguntzarako zerbitzuak.....59.000.000
- KIUBen ekintzak1.200.000
- Iturbide Egoitzaren defizita55.686.000
- Erakunde Ez Gubernamentalak4.300.000
- Udal tasak ordaintzeko dirulagun6.221.000
- Beste gastu batzuetarako dirulagun1.931.210
- Pobreziaren kontrako plana-larrialdiak.34.000.000
- Babesgabeke egoeretako laguntzak2.000.000
- Egoitzako inbertsioak8.500.000
- Zahar etxeen inbertsioak1.500.000

HIRIGINTZA430.985.736

- Pertsonal gastuak70.086.769
- Ondasunak eta zerbitzuak6.565.000
- Mankomunitatea - lurralde antolamend1.610.000
- Mankomunitatea - Degabehiga.....3.256.000
- Erreabilitatzeko laguntza plana1.000.000
- Ingurugiro taldeentzako dirulag200.000
- Alde zaharreko eta area berrien urbaniz ..20.000.000
- Ur eta saneamenduko inbertsioak20.000.000
- Uharkape obra subsidiarioak30.000.000
- Agerre aldea hobetzea30.000.000
- Lur industrialaren erosketa eta gestioa ..120.000.000
- Parrokiako obren 2. faserako dirula.. 25.000.000
- Degabehiko akzioak erostea346.500

AUZOAK69.900.417

- Mankomunitatea- Nekazaritzako kuota2.470.968
- Auzoetako jaietarako dirulaguntza6.839.440
- Auzoetako inbertsioak21.000.000
- Mendi nekazaritzako inbertsioak7.000.000
- Baserri bideak20.000.000

GAZTERIA26.315.812

- Pertsonal gastuak6.415.812
- Gazteria batzordearen ekintzak10.500.000
- Gazteriarako dirulaguntzak..... 6.750.000
- Garibai etxeke teilatua1.000.000

UDAKO Ikastaro Intentsiboak

96

AKADEMIA
BASTIDA
INEM-66 HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb.,3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 35 33*- 79 32 16
Fax: 79 06 28

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Windows, Word, Access, Power Point, Excel)

PROGRAMAZIO INFORMATIKA

**DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA**

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

**GIZA ERREKURTSOEN
ADMINISTRAKETA**

MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

EUSKARA

INGENIERITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

**ABUZTUAN
ERE
PRESTATZE
N DA**

Angoisa, S. A.

ETXEBIZITZEN PROMOZIOA

Munar, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 83 08

PERTSONALA.....256.770.735

- Pertsonal gastuak159.209.058
- Udal aseguruak10.500.000
- Enpleguaren ekintzak12.400.000
- Prentsa eta irratiko iragarkiak4.000.000
- Lege aholkularitza5.000.000
- Enplegua garatzeko agentzia zerbitz ..1.653.350
- Mankomunitatea - Lantegi Eskola8.421.286
- Mankomunitatea - Lanbide Hastapena ...10.784.420
- Ekipamendu informatiko eta ofimatikoa ...5.325.000
- Pertsonalaren aurrerakinak10.000.000

EUSKARA.....161.295.964

- Pertsonal gastuak93.563.964
- Euskararen ekintzak5.025.000
- Euskaltegirako erosketak2.350.000
- Euskaltegia, funtzionamendu gastuak1.850.000
- Euskararako dirulaguntzak41.166.000
- ARKO-ATB lokalen inbertsioa1.000.000
- Euskaltegiko inbertsioak2.800.000
- Euskaltegia: informatika eta ofimatika.. 500.000
- Irratirako inbertsioak 500.000

ZERBITZUAK695.684.559

- Pertsonal gastuak194.749.116
- Funtzionamendu gastuak30.241.000
- Bideak garbitzeko zerbitzua98.247.441
- Ur eta saneamendurako erosketak12.115.000
- Parke eta lorategiak71.328.000
- Mankomunitatea-zerbitzu orokorra ..16.780.000
- Mankomunitatea-hondakin solidoak42.635.000
- Mankomunitatea-errautsea17.230.000
- Mankomunitatea-hiltegia2.880.000
- Uren partzuergoaren kuota68.996.000
- Inbertsioak30.075.002
- Uren partzuergoa saneamendu.....41.751.000

EMAKUMEA.....14.216.564

- Pertsonal gastuak4.021.564
- Emakume batzordearen argitalpenak10.000
- Emakumearen udal kontseilua9.150.000
- Emakumearen kontseiluaren dirulagun1.035.000



BRUES, S.A.

Eraikuntzak

Errotaburu pasealekua, 1 10 solairua Erguin, 5 etxebaia
Tel.: 31 12 19 Tel.: 79 15 73 / 79 83 45
Faxa: 31 12 22 Faxa: 79 53 02
DONOSTIA ARRASATE



Anboto

**INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIA**

Iturriotz, 11
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 48



**KONTRATAK
iRURoK**



ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tfnoa: 77 09 92 / Faxa: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxebaia
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI



Cerveceria Leintz taldekoek Santi Boisari omenaldi hunkigarria egingo diote ekainaren 8an. Arratsaldeko 5etan Zaldibarko konbinatuak eta Cerveceria Leintzek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak. Ziur gaude harmailak jendez gainezka izango direla Santik merezi duen omenaldia izan dezan.



Afarian Cerveceria Leintz, Argi Ibili eta antolatzaileak izan ziren. Kataiden bapo jan eta ederto edan eta gero, goizalderarte iraun zuen juergak. Ez dakigu zer egin zuten baina domekan bixamon galantaz jaiki ziren. Gaez parranda egunez etzanda!

Zapatuan epaile lanak bete zituzten Haritz Azkarragak eta Andoni Zurbanok gauerako tentsio guztiak ahaztuta zituzten eta finalistekin batera juerga ederra bota zuten. Hauek dagoeneko ohituta daude horrelakoetara!

Uribe Auzoko Futbito Txapelketa

Emaizak

Racing Molotov 4 - La mosca Gao 1
 Zutarri 6 - Eight 5
 Betrayer 5 - Hirei 2
 Diego Antonio 4 - Malpikas 6
 Uglys txitao 14 - Joseba kontenedoreak 5
 Nuevo taberna 1 - Cartonajes Ulgamo 1
 Pobres Rangers 1 - Balon Rojo 3
 Dribling 5 - Beluga 2

Sailkatutako taldeak

Dribling
 Uglys Txinato
 Zutarri
 Malpikas
 Racing Molotov
 Balon Rojo
 nuevo taberna
 Betrayer



URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Larunbata 8 Iturripe A

16.00 Zutarri - Uglys Txinato (A)
 17.00 Dribling - Malpikas (B)

Iturripe B

16.00 Racing Molotov - Balon Rojo (D)
 17.00 Nuevo taberna - Betrayer (E)

Igandea 9

Iturripe A
 12.00 A - D

Iturripe B

12.00 B - E

Uribe auzoa txapelketa azken sprintean

Uribe Auzoa txapelketa final-laurdenetara heldu da hainbat astetan pil-pilean egon eta gero. Talde onenek lortu dute aurrera egitea eta orain txapelketa poltsikoratzeko asmoz dabiltzanek erronka zaila izango dute, izan ere, neurketa bakarrera jokatuko dira final laurden eta erdiak. Zapatu eta domeka artean finalistak zeintzuk diren jakiteko aukera egongo da. Final handia berriz, ekainaren 15ean jokatuko da Iturripeko kantxan arratsaldeko 5etan. Ordu bete lehenago 3. eta 4. postuak egongo dira jokuan. Neurketak bukatuta sariak banatuko zaizkie irabazle eta jokalarari nabarmenei.

Nesken Futbito Txapelketa

Emaizak

Joixon Bertan 1 - Shaktale 8
 Izenbakuak 1 - Zeppaesstandan 3

Sailkapena

- 1- Shaktale
- 2- Zeppaesstandon
- 3- Izenbakuak
- 4- Joixon Bertan

Hurrengo partiduak

EKAINAK 9

3. eta 4. postuak

11.00 Izenbakuak - Joixon Bertan.

Finala

12.00 Shaktale - Zeppaesstandon.

Partiduak Zaldibarren jokatuko dira eta ondoren sari-banaketa egingo da.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
 Tfnoa: 79 20 56

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
**Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak**

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
 Tfnoa: 79 15 65



Baserriari bultzadaxo bat

Irailetik aurrera baserriarrek barazki eta fruituak beste modu batean saltzeko aukera izango dute. Gatzagako Udalaren eta Deba Garaiko Mendi Nekazaritza

ren ekimenez, produktu horiek transformatzeko enpresa zabalduko da Gatzagan. Lantegi horretara eramango diren barazkiak eta fruituak potetan sartuta ate-

rako dira behin transformatu eta gero. Enpresa zein izenekin bataiatu erabaki barik dagoen arren, proiektua guztiz zehaztuta dago.

Maria Agirre

Transformaziorako enpresaren proiektua ez da goizetik gauera jaio. Gatzagako Udala horrelako ekimen bat garatzekotan zebilela jakitean, Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Gatzagako Udalarekin harremanetan jarri eta bi urtetan proiektuari itxura eman dio-

te. Enpresa Gatzagan kokatuko da, Udalaren ondoan dagoen lokal batean. Txoko horrek 130 m²ko azalera du. Enpresaren atea irailean zabalduko direla eta, datorren hilean lokala egokitzeke lanak hasiko dira.

BASERRIARI BIZITASUNA EMAN

“Baserria bizi izateko toki bat baino zerbait gehiago da”,

dio Mari Karmen Iturbek, Mendi Nekazaritzako teknikariak. “Azkenaldian badago joera baserrira bizi izatera joan baina baserriko lanak alde batera uzteko, eta hori zelabait eragotzi nahi dugu. Eskuartearen dugun proiektuarekin baserriari bizitasuna eman, eta baserriarrek base- rrian lanean jarraitzea animatu nahi ditugu”.

Baina bada beste arrazoi-

rik ekimena bultzatzeko: baserrietan sortzen den soberakina. “Askotan baserriarrek ez daki zer egin soberan geratzen zaizkion fruitu eta barazkiekin, eta transformatu ezinda usteldu egiten zaizkio. Abuztuan, gainera, uzta garrantzitsua izaten da gure inguruan, baina jende gutxi geratzen denez ezer gutxi saltzen da eta soberakinarekin zer egin ez dakitela geratzen dira base-



Sagarrak, madariak edo kiwiak, gehien bat hemen hazten diren fruituak izango dira transformatuko diren lehenengoak.

rritarrek. Enpresan fruitu eta barazkiak transformatu eta potetan sartuko dira, eta ontzi horiek bost urteko kaduzitatea izango dutenez baserritarrek produktua saltzeko denbora tarte handiagoa izango dute. Era berean, metodo honek fruitu eta barazki gehiago lantzeko aukera emango die baserritarrei.

ZELAN TRANSFORMATU?

Gatzagako enpresa horretatik irtengo diren ontziak berme osoarekin eta legez saltzeko behar den erregistro sanitarioarekin salduko dira. Barazki eta fruituak artisauek erantortuko dira, eta ez dute kontserbanterik eramango.

Barazkiekin zera egingo da: garbitu, zatitu, ur irakinetan egosi bat eman, ur hotzetan hozketan utzi, eta kristalezko ontzitan sartu ura eta

“Azkenaldian badago joera baserrira bizi izatera joan baina baserriko lanak alde batera uzteko, eta hori zelabait eragotzi nahi dugu”



Ontziek bost urteko kaduzitatea izango dutenez baserritarrek produktua saltzeko denbora gehiago izango dute

gatza gehituz. Behin ontzia guztiz itxita, esterilizatu egingo da 115 gradutan bakterio eta onddoak kentzeko. Zerbak, kolifloreak, porruak, erremolatxak eta lekak izango dira potetan sartuko direnak. Fruituekin ere antzerako prozesua jarraituko da baina membrillo eta mermelada eran salduko dira. Fruituak ere egosi egingo dira, eta bati-doran txiki-txiki egin ondoren azukrea bota eta ontzietan sartu. Kasu horretan esterilizazioa 100 gradutan egingo da. Sagarrak, madariak edo kiwiak, gehienbat hemen hazten diren fruituak izango dira transformatuko diren lehenengoak. Asmoa, baina, fruitu gehiago landatzera animatzea da.

ZELAN PARTE HARTU?

Hiru aukera izango dute enpresa horretan parte hartzea erabakitzen duten base-

rritarrek.

Batetik, fruitu eta barazkiak enpresari saltzeko aukera egongo da, eta ondoren, enpresak salduko du produktua jatetxeetan, denda txikitetan edo azoketan. Bigarrenik, baserritarrak uzta eraman dezake lantegira eta hango langileak arduratuko dira transformatzeaz. Enpresak erregistro sanitarioa emango dio eta saltzeaz baserritarra arduratuko da. Transformazioaren kostua bere gain hartuko du baserritarrak. Azkenik, enpresara joan eta bere uzta transformatzeko aukera izango du baserritarrak. Ondoren, saldu egingo luke. Astia duten baserritarrek hartuko dute aukera hau.

BASERRITARREN ERANTZUNA

Inguruko baserritar askok ezagutzen du Mendi Neka-

zaritzaren eta Gatzagako Udalaren ekimena. Orain dela hilabete inkesta bat egin zen proiektuan zenbat baserritarrek parte hartu nahi duten jakiteko. Mendi Nekazaritzako teknikariaren berbetan, oso pozik daude ekimenak izan duen erantzunarekin. "Ez genuen uste horrelako harrera onik izango zuenik. Orain arte nekazal sektorea oso geldi egon da, eta baserritarrendako proiektua gauza berria da".

Inkesta proiektuarekiko interesa izan zezaketela uste zirenei egin zaie bakarrik. Deba Garaian 1.100 baserri dago gutxi gorabehera eta guztira 107 inkesta egin dira. Emaizta honakoa izan da: 68 baserritarrek inkesta erantzun dute, eta horietatik 15ek bazkide moduan enpresan parte hartzeko nahia azaldu dute. Beste 12, berriz, barazki eta fruituak enpresari saltzekotan geratu dira. Parte hartzeko konpromezua erakutsi duten 15 bazkideekin eta lehendik izena emanda zuten beste 11ekin proiektuak 27 bazkide biltzea lortu du. Bazkide gehien Oñatin lortu dira, 10 guztira; Bergaran 5; Gatzagan 3; Antzuolan 3; Aretxabaletan 3; Arrasaten 2 eta 1 Eskoriatzan.

AURREKONTUA

Ez da diru kopuru handirik jarriko proiektuari hasiera emateko, 7.500.000 pezetako aurrekontuarekin abiatuko da eta. Inbertsioaren %65a Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak dirulaguntza moduan emango dutenarekin estaliko da.

Bestalde, enpresa S.L.-a izango denez 100 partizipazio jarriko dira salgai eta horietatik 51 Deba Garaiko Mendi Nekazaritzak eta Gatzagako Udalak erosiko dituzte. Bazkideek gainontzekoaz jabetzeko aukera izango dute, 20.000 pezetako parti-



Baserritar batzuk proiektuan parte hartzeko nahia azaldu dute.

zipazioak erosit. Datozen hamar urtetan Mendi Nekazaritza eta Gatzagako Udala izango dira proiektua bultzatuko dutenak, baina epe hori pasatakoan partizipazioak salduko dizkie bazkideei laguntzaile izateari utziz.

Merkaturatzea espero den ontzi kopuruari dagokionez, lehenengo urtean 50.000ko kopurura iristeko asmoa dago, bigarren urtean bikoitza merkaturako litzateke, eta hirugarrenean 150.000.

Mari Karmen Iturberen berbetan, kopurua txikia da Nafarroako kontserbera batek produzitzen duena kontuan izaten badugu. (Nafarroako kontserbera batek ordu batean 15.000 ontzi produzitzen ditu). "Gure produktua hala ere kalitatezkoa izango da" dio Mari Karmenek, "eta ez Nafarroakoak bezala asko produzitzezaren kalitatea galtzen dutela".

ITXAROPENTSU

Etorkizun ona ikustendio proiektuari Mari Karmen Iturbek nahiz eta oraingoz Euskal Herrian ez den horrelako ekimenik ezagutzen. Hala ere, Lea Artibain eta Zerainen, adibidez, badago horrelako zerbait egiteko asmoa.

"Zalantzak ere baditugu" onartzen du Mari Karmenek, "baina animatuta gaude. Momentu batzutan produktuak alperrik galtzen dira, eta horri irtenbidea eman behar diogu. Beste batzutan, sasoiaren arabera, uzta gutxi jasotzen da eta baserritarrek ez dute zer saldurik izaten. Ontzietan sartuz gero, urte guztian zehar izango dute produktuak saltzeko aukera. Bestalde, badakigu proiektu horrekin baserritarrek ezingo dutena bizi-modua aurrera atera, baina laguntzatxo bat izango da.

Esandakoa, proiektua bataiatzea falta da.

Gatzagako enpresa horretatik irtengo diren ontziak berme osoarekin eta legez saltzeko behar den erregistro sanitarioarekin salduko dira.



Ez da diru kopuru handirik jarriko proiektuari hasiera emateko, 7.500.000 pezetako aurrekontuarekin abiatuko da.



"Gure produktua kalitatezkoa izango da eta ez Nafarroako kontserberak egiten duten bezala asko produzitzezaren kalitatea galtzen dutela"



Lehenengo urtean 50.000 ontzi merkaturatzeko asmoa dago eta bigarrenean bikoitza. Hirugarrenean 150.000ra iristea da helburua.

● *Montxo Jimenez*

“Ijitoak zorientasuna bilatzen du”

Orain dela sei urte hartu zuen Gipuzkoako Ijitoen Elkarteak lehen-dakaritza Montxo Jimenezek. Orduetik hara eta hona ibiltzen da Montxo ijitoak zer diren eta zelan pentsatzen duten azaltzen. Orain dela gutxi arrasatearrek izan zuten Montxoren azalpenak entzuteko aukera.

- Zer iruditu zitzaizun Musakolako bizilagun batzuk ijitoen aurka izan zuten jokaera?

- Nik ez nuen eurekin harremanik izan, uste dut ez zuela pena merezi eta. Musakolara joan nintzen baina ijitoekin egoteko bakarrik. Gainera, auzian murgilduta geunden guztiak deitu gintuzten bilera batera baina Musakolakoak ez ziren azaldu.

Ijitoekin izan nintzen, eta esan zidaten ez zutela ezer txarrik egin eta oso irainduta sentitzen zirela. Tentsio handian egon ziren eta benetan gaizki pasatu zuten. Ijitoek Arrasatera joaten jarraituko dutenez, ijitoen egoera apurtxo bat ulertzea eskatuko nieke arrasatearrei.

- Zenbat ijito zaudete Gipuzkoan eta noiztik?

- 2.000 inguru. Azken 30

urtetan ijito asko etorri da Gipuzkoara bizi izatera. Errenterian, Lasarten, Irunen, Hernanin, Tolosan edo Amaran bizi dira gehienak. Valladolidetik etorri izan da asko baina baita Asturiasetik edo Kataluniatik ere.


- Zertan lan egiten duzue?

- %80a saltzaile ibiltaria da, hau da, azoketara joaten dena. Orain arte arazoak izan ditugu ijitoen artean salmenta hori erregulatu barik zegoelako. Horregatik, saltzaile ibiltarien kooperatiba egin dugu. Horrez gain, badaude txatarra edo kartoa jasotzen dutenak ere.

- Zein arazo duzue probintzian bizi zaretenok?

- Arrazakeriarekin lotutako arazoak eta horrez gain, bizi baldintza eskaxena. Gehienagoak agintzen duen gizarte honetan sartzea eskatzen zaigu, baina ez dugu, adibidez, gizarte honetan lanpostu duin bat lortzeko aukerarik. Payo batendako lana aurkitzea zaila bada, pentsa ezazu zer izango den ijito batendako! Gainera ez gaude ondo prestatuta, gure ezagutza maila txikiagoa da.

- Gaur egun hala ere ijitoen seme-alaba gehienak joa-



ten dira eskolara.

- Hala da. Probintzian bizi garenon seme-alaba gehienak behintzat joaten dira eskolara. Txikienendako gogorra izan da eskolara joatea, egokitzapena ez da erraza izan eta. Gure umeak gutxi identifikatzen dira eskolan eskaintzen dietenarekin. Nire semeak, adibidez, lehen-go egunean galdetu zidan ea eskolan zergatik ez duten inoiz flamenkoa jartzen.

- Ijitoak gurdiaekin hara eta hona. Hori bukatu da, ezta?

- Hori dagoeneko ideia erromantiko bat baino ez da. Momentu batzuetako egoera ikusita galdetzen diot emazteari, ea ez ote ginen zorientsuagoak izango gurdiaekin hara eta hona ibilita. Munduko egoera ikusi eta pentsatzen dut: baina zein mundutan bizi gara! Ijitoek beste era batera ulertzen dugu bizitza.

- Gizartera moldatzerakoan ohitura asko galduko zenuen.

- Zer garen garbi ez badugu horren arriskua dugu. Ijitoak bere nortasuna zein den garbi izan behar du. Umeak eskolara joan daitezke, baina euren nortasuna ez dute zertan alde batera utzi behar.

- Zein da ijitoa eta nora doa?


- Ijitoa oso izpirituala da, eta ez materialista. Ijitoak zorientasuna bilatzen du dituen aukeren barruan. Beste gizaki bat gehiago da, baina pentsakera ideologiko eta balore oso desberdinekin. Nik askotan esaten dut kultura desberdinen arteko elkartruketa egin beharko genukeela. Ijitoek badute payoengandik zer ikasirik baina baita alderantziz ere.

- Berriz Arrasatera etortzeko asmorik?

- Ijitoek jaten ditugun janariekin bazkari bat prestatzea ederto egongo litzatekeela pentsatu genuen Udaleko teknikari batek eta nik neuk. Ea egiten dugun!

● **“Kultura desberdinen arteko elkartruketa egin beharko genuke. Ijitoek badute payoengandik zer ikasi baina baita alderantziz ere”**

Freska ezazu zure euskara!



Arrasateko Udal Euskaltegia

(16 urtetik gorakoentzat)
Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak

Matrikulaldia: Ekainaren 1etik 18ra arte

Prezioa: 6.700 pezeta
Materialea: 1.500 pezeta
2.500 pezeta 9, 10, 11, 12 urratsekoek eta
Alfabetatze 2koek
BEKA SISTEMA daukagu

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Telefonoak: 79 70 77 • 79 77 88 • ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■



ILEAPAINDEGIA

**Emaiozu
kolorea
zure
bizitzari!**



Ez kongaietan espezialistak.
Kolore berritzaileak Londresko teknikarekin.
Feeling-arekin egindako mozketak.
Zerbitzu osoa.

ESTETIKA:
• Estudio eta argazkitarako makilaia.
• Betileen tintea.
• Betileen permanentea.

Gorbea, 2 Behea Tfnoa: 77 09 44 ARETXABALETA



Mende laurden rugbyan

1 971ko abenduaren hasieran hainbat arrasatear gazteren bultzadaz lehen rugby taldea jarri zen abian Jesus Jauregi entrenatzailearen gidaritzapean. 37 rugby jokalarik sutsu elkartu ziren orduan ezezaguna eta arrotza zen kirolari bultzada emateko. Hasieran elastiko berde eta fraka more-zuri jantzita Iturripeko zelaian aritzen ziren. 71-72 denboraldian Luis Mari Etxaburu zen lehendakaria eta "Juventud Deportiva Mondragon" izenaz ezagutzen zen taldea. Sasoi hartan lehen mailako 4. postua eskuratu zuten eta Espainiako ligan parte hartzen zuen Donostiako Atletico San Sebastianekin batera euskal talde bakarra izanik. Arrasatek lortutako postua ez zela txantxetakoia izan esan daiteke. 1.976an aho batez hartutako erabakiari esker taldearen izena aldatu zen, "Arrasate Rugby" taldea ordutik. Taldeak egin duen bide luzean garaipenaren zapore gozoa eta porrotaren mingostasuna dastatu izan ditu baina beti kiroltasuna eta rugbyari zor zaion errespetoa zainduz. Izenaren aldaketak jantziaren aldaketa ere ekarri zuen, uniforme berria marradun txuri morea zen kamiseta, praka eta galtza beltzez osatuta.

Erregional kategorian aritu ondoren 1.978-79an Espai-



Arrasatear ugarik rugbya gertatutik ezagutzeko aukera izan dute.

**Rugbylari
gazte berriak
eskuratzea da
taldeko
arduradunen
premia handia.
Harrobia
sendoa osatu
nahi dute kirol
honek berriro
pisua har
dezan
Arrasaten**



niako Iparraldeko 2. mailara igotzea lortu zuten eta hortik lehen mailara. Luis Etxebarria zen lehendakaria, Jose Ramon Izurrategi lehendakariordea eta prestatzaileak Luis Unzueta eta Carlos Arizabaleta. Jokuak eta emaitzak erakarririk jendearekin bi talde osatu ahal izan ziren. Orduan lortutako txapelketei gainbegirada eman ezin ahaztu 74-75 denboraldian lortutako federazioaren trofeoak, 75-76an Vasco Navarro zeritzan txapelketan lortutako ohorezko lehen postua, 76-77 ligako lehen postua, Anoeta Rugby txapelkunari irabazi zion talde bakarra izanik. Dena dela esan behar da Arrasateko rugby taldeak urte

bakarra jokatu ahal izan zuela goiko mailan. Geroztik 1.981-82ko eta 82-83ko jentsierarekin taldearen gainbetera nabarmena etorri zen. Horrela zoritxarreko 84-85ean liga txapelketa bukatzeko utzi zen jokalarik askok soldadutzara joan behar izan zutelako. Horrela bukatu zen J. A. Moraleja lehendakari eta Patxi Gorosabel entrenatzaile lanetan aritutako garai iluna.

86-87 denboraldian rugby taldea berriro berpiztu eta ilusioz beterik jarri zen martxan. Agustin Aranburuk hartu zuen orduan taldearen presidentzia eta Txanton eta Claudio Mertzan Kako entrenatzaile lanetan aritu ziren. Taldea osatzeko eskola profesionalan



Herensugeak veterano taldea aurten osatu da eta dagoeneko hainbat neurketa jokatu du.

azpitzapelduna izan zen taldea, urte batzuk geroxeago, Euskadi eta Espainiako jubenil selekzioetan parte hartutako Sebas Gorosabelengan zuen bere izar nagusia.

1991-92 denboraldian Peio Iriarteren eskutik lortu ziren emaitzarik aipagarrienak. Garai horretan herriko rugbyari lehen mailara igotzeko aukera aparta izan zuten. Baina ez zen lortu eta horrez gero, noraezean ibili da taldea.

Era berean aipamen berezia merezi du 93-94 denboraldian Josu Ezkurdia eta Kakoren gidaritzapean sortutako nesken taldeak. Talde horrek dena dela, ez zuen bizitza handirik izan, baina ahalegina hor dago.

Denboraldi honetan Arrasateko rugby taldeak 2. mailako igoera fasean paper eder eta bete ondoren lortutako lehen postuari esker igotzea lortu du. Gainera Arrasateko "Herensugeak" izenarekin ezagutzen den veteranoen taldea aurten osatu da.

Historia ugari, une gozok, mingotsak denetarik bizi izan du Arrasateko Rugby taldeak. Lehen proiektutik 25 urte igaro direnean taldekoek badute pozik eta harro egoteko arrazoirik. Oraindik dena dela, lan asko dute aurrean eta rugbyak Arrasaten berriro bere pisu eta garrantzia har dezan guztion laguntza behar du.

25 urte hauetako ospakizun ekintzei behar den moduko amaiera emateko, rugby taldeak goi mailako neurketa antolatu du zaturako. Atxabalpeko zelaian arratsaldeko Setan Euskadiko selekzioa eta Bordeleko Begles taldea izango dira lehian. Euskadiko taldean Patxi Gorosabel arrasatearrak jokatu du eta sarrera dohainik izango da. Ea bada jendea animatzen den!



Emakume rugby taldea ere sortu zen Arrasaten baina ez zuen bizitza handirik izan.

ikasten ari ziren kanpotar batzuen laguntza aprobetxatu zen, talde indartsua osatuz. Nagusietan 49 eta gaztetan 32 fitxa zeuden. Indar horrek emaitza onak ekarri zituen, horrela Gipuzkoako ligan 2. postuan sailkatzea lortu zuten.

Azken urteotan berriz, Deba Garaiko herri eskola eta ikastoletan egindako lana ere azpimarragarria da.

Rugby taldea oraindik indartsu dago lanean jarraitzeko



Horren ondorioz, 1988ko uztailaren hasieran eskola arteko rugby txapelketan parte hartu zuen osatutako kadete mailako taldearekin. Talde horrek 92-93 denboraldira arte iraun zuen.

Bestalde 73-74 denboraldian sortutako gazte edo jubenil taldeak, bere bidea jorratzen ari zen bitartean, fruitu ederrak eman zituen. 77-78ko denboraldian Euskadiko

Fernando Nogalesek urrezko domina eta Oscar Gabilanek Zilarrezkoa

Infantil mailako Euskadiko Atletismo Txapelketa egin zen Mendizorrotzan, bertan Arrasateko bi ordezkari izan ziren. Fernando Nogalesek 1.000 metrotan 2'25"25 ehuneneko denborarekin lehen postua eskuratu zuen, urrezko domina lortuz. 14 urteko korrikalaria Gipuzkoako txapelduna da 1.000 metro hesitan, 3.000 eta 1.000 metrotan txapeldunordea eta hirugarrena 600 metrotan. Oscar Gabilanek disko jaurtiketan 34 metro eta 76 zentimetro jaurti ondoren zilarrezko domina lortu zuen. Gogoratu behar dugu atleta hori Gipuzkoako txapelduna dela 4 kiloko pisu jaurtiketan 10 metro eta 94 zentimetroko markarekin eta Gipuzkoako txapeldunordea disko jaurtiketan.

Atletismoari dagokionez Eskoriatza-Arrasate herri krosaburutu zen domekan, Atletiko Arrasate kirolak taldeak antolatuta. Saillkapena mailaz maila honela geratu zen.



Fernando Nogales, urrezko domina 1.000 m-tan.



Oskar Gabilan, disko jaurtiketan zilarra.

Gizonak

- 1- Jose Apalanza24'22"
- 2- Alvaro Zamora.....24'28"
- 3- Ramon jauroso24'38"

Juniorrak

- 1- Miguel rodriguez27'37"
- 2- Jose Miguel Fernandez27'48"
- 3- Oscar Gallardo27'54"

Beteranoak

- 1- Serafin Garcia25'44"

- 2- Xabier Mentxaka25'47"
- 3- Frantzisko Andres27'01"

Emakumeak

- 1- Camila Bravo33'13"
- 2- Antonina Patxo34'07"
- 4- M Jose Gil.....34'58"

Gazteak

- 1- Yoli Miño32'23"
- 2- Nagore Basterra

Saskibaloia taldea harrobiari deika

Arrasate saskibaloia taldea gazte bila dabil datorren denboraldirako. Harrobi sendoa izateko helburuarekin deia egin diete 1981-82an jaiotako gazteei astearte eta ostiraletan Iturripeko kiroldegira zuzendu daitezen arratsaldeko 7etatik 9etara. Arrasateko neska-mutil guztiak daude gonbidatuta eta ez da baldintza berezirik behar, saskibaloian aritzeko gogoia nahikoa da Urbina Maltzaga tal-

de gazteetako jokalaria izateko.

Bestalde esan behar da saskibaloia taldeak presidente berria aukeratzeko kanpaina hasi duela. Jose Mari Balzategik dagoeneko urte mordo daramatza taldearen ardura eta uzteko gogoia du. Presidente izateko gogoz norbait balego, Jose Luis Iñarra 30 behean duten lokalera zuzendu beharko da ekainaren 18a baino lehen.

Udaberriko pilotari irabazleak


Benjamin, alebin eta infantil mailako Udaberri txapelketako finalak jokatu ziren domekan Iturripeko kantxan. Benjaminetan Paul, Mikel eta Arriaran-Mentxan izan ziren aurrez aurre. Partidu lehiatsua izan zen baina azkenean Paul eta Mikel nagusitu ziren 22 eta 20. Alebinetan Ugartetxe-Asier Diosdadoren aurkariak Bergaretxe-Urkiak. Hasieran bi bikoteak indarrez parra hasi baziren

ere, Urkiak eskuan min hartu eta ezin izan zuen bere maila erakutsi 16 eta 22 galduz. Infantilena partidu politena izan zen. Alde batetik Kerejeta-Beñat eta bestetik Asier Blanco-Etxeandia. Pilotariak bizi bizi jokatu zuten eta batez ere Blanco eta Beñaten lana azpimarratu behar da. Hala ere, 22 tantura bikote bakarra heldu zen, Kerejeta-Beñatek osatutakoa. Hauek 22 eta 18 irabazi zuten.

Z E R N A H I A G O ?

Maite Agirre**"Amagara" estetika zentrukoa**

- Zein babes krema erabili behar da eguzkia hartzeko? Azalaren arabera, baina beti erabili behar da.
- Zer egin behar da azaleko minbizia ekiditeko? Nahiz eta babes krema erabili, eguzki gehiegi ez hartzea.
- Udarantz zertara etortzen da jendea zentzura? Gorputz tratamenduak egitera, depilatzerara eta solariumera.
- Arrasatearrak obsesionaturik daude euren itxurarekin? Gustatuko litzaidake baina ez da horrela. Jendeak oraindik ez du hori baloratzen.
- Gizonik etortzen da? Oso gutxi. Solariumera edota kirolariak depilatzerara etortzen dira.
- Depilatzeke zera beroa ala hotza erabiltzen da gehiago? Geroz eta gehiago hotza.
- Zuk zein nahiago? Hotza.
- Nora joaten zara arropak erostera? Arrasaten bertan erosten ditut.
- Margotzen dituzu azkazalak? Oso gutxitan.
- Alergiarik baduzu? Nik dakidala ez.
- Bikinia ala bainu jantzia? Bainu jantzia.
- Barruko arropa zein kolorekoa? Beltza edo txuria.
- Hasi zara eguzkia hartzen? Bai.
- Nora bidali duzu azken gutuna? Gogoratu ere ez dut egiten.
- Zenbat denbora pasatzen duzu egunkaria irakurtzen? Ez dut irakurtzen, irratia entzuten dut.
- Ikusi duzun azken pelikula? "Los puentes de Madison".
- Zer pelikula mota gustatzen zaizkizu? Thriller-ak edo erromantikoak. Biolentziazkoak gorroto ditut.
- Egin dizuten azken operaria? Nire alabek marrazki bat oparitu zidaten.
- Egin duzun azken operaria? Amari argazkia jartzeko marko bat.



MUSIKA

Izaskun Murgiari omenaldia

Arrasate Musikalek iaz hil eta akademiako irakaslea izan zen Izaskun Murgiari omenaldia egingo dio larunbatean. Goikobalu Abesbatzak eta Arrasate Musikaleko Orkestrak Haendel, Mozart, Schumann, Delibes eta Purcell musikarien errepertorio-etako hainbat obra eskeini-ko dute.

Orkestrako bakarleri moduan Isabella Blezzien pianu irakaslea arituko da. Abesbatzan berriz, bakarleri moduan Silvia Solana kontraltuak, Amaia Zubiria, Cristina Cubillo, Anuska Ezkurra eta Ruth Osinaga sopranoek eta Mikel Arregi baritonoak abestuko dute. Unai Urretxok tronboia joko du bakarleri moduan ere.

Omenaldi kontzerturako bost bibolinjole berri sartu dira Arrasate Musikaleko Orkestran. Kontzertua Fernando Etxeparek zuzenduko du eta larunbatean arratsaldeko 7.30etan izango da Amaia Antzokian. Sarrera dohainekoa izango da.



Udako ikastaroak eta errekupeazio ikastaroak

ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

AMABET
LABORE ETXEA

- Gurutze puntuak (Kit prestatuak)
- Petit-point eta Bolilloa
- DMC ariak (koloreen gama guztiak)
- Arizko tela, Panama

Kalebarria, 49 • OÑATI • Tfnoa: 78 04 84



XX

Alberto Urretxo

Brass musika talde berriaren hasierak

Duela aste gutxitik kultur talde berri bat dugu Arrasaten, "Mondragon Brass" taldea. Tronboi irakaslea den Alberto Urretxok sortu du eta Arrasateko eta kanpoko ikasleek eta irakasleek osatzen dute. Guztira 13 lagun. Euren burua herrian ezagutzera eman ondoren, kanpora irtetzea nahi lukete.

— Zer da "Mondragon Brass"?

— Talde handi bat da eta talde horren barruan hiru talde txiki daude: tronboi talde gaztea, tronboi talde heldua eta metal taldea, azkenengo hau instrumentu desberdinez. Taldea brass musika jotzeko sortu dugu. Brass musika metal-haizezko instrumentuekin egiten den musika da. Talde hau osatu eta gero estilo guztietako doinuak jo nahi ditugu eta gainera, doinu horiek kalera ateratzea.

— Zein helburu duzue?

— Momentuz Arrasateko ekintzetan parte hartzea nahi dugu, beste talde kulturalak egiten duten moduan. Jendeak gure musikarekin goz dezan nahi dugu, behintzat hori jarri dugu gure aurkezpen txartelean. Elizetan, antzokietan nahiz kalean joko dugu, beti ere toki eta egoera bakoitzari egokitutako errepertorio batekin. Gerora ez dakit, kanpora ateratzea ere gustatuko litzaiguke eta horretan ahaleginduko gara. Interes pertsonal moduan, talde



sendoa lortzen badugu, harrera ona badugu eta taldeko partaideek lana gogoz hartzen badute, dirulaguntzak eskatu eta lan serioago eta profesionalago bati ekitea nahi nioke.

— Nortzuk osatzen dute taldea?

— Ikasleek eta irakasleek. Ikasleek Arrasate Musikalen ikasten dute eta batzuk herrikoak dira baina

beste batzuk kanpotik datoz. Irakasleekin gauza bera gertatzen da. Hainbat orkestretako partaideak ere badaude.

— Nola sortu zitzaizun taldea osatzeko ideia?

— Hiru urte daramatzat akademian irakasle lanetan eta banuen talde bat sortzeko ideia. Orain arte zaila izan da, metal-haize instrumentu jole talde

sendorik ez zegoen eta. Orain berriz, talde sendo bat sortu da eta gainera maila onekoa. Askok profesionalki dedikatzeko asmoa dute eta dagoeneko, erdi-profesionalak direla esan daiteke. Taldea osatzeko momentu ona dela uste dut. Bestalde, hainbat orkestratan egiten ditudan kolaborazioak direla eta, musikari asko ezagutzen dut eta horiek ere taldeko partaideak dira.

— Baduzue zuek sortutako piezak jotzeko asmorik?

— Badaukagu asmoa. Alde batetik Jose Ramon Vitoriaren laguntza daukagu, berak arregloak etabar egin behar dizkigu. Gure aldetik bagabiltza horretan ere baina momentuz entsaioak besterik ez dira.

— Orain arte zertan emanaldi eskaini duzue?

— Lehen emanaldia metal taldearekin egindako aurkezpen kontzertua izan zen. Ondoren Soralezera joan ginen. Han Elkartetxe bat osatu da eta jotzera joan ginen. Orain dela gutxi izan den Atzeratuen Astean ere hartu genuen parte. Gazteen taldeak jo zuen eta oso esperientzia polita eta aberatsa izan zen eurentzat. Jendea asko gustatu zitzaion eta gainera pieza ezagunak jo zituzten nik egindako arreglo batzuekin. Jendeak musika ezaguna entzun eta gozatu ahal izan zuen. Orain burubelarri gabiltza San Juanetako emanaldiak prestatzen, hiru taldeak joko dugu eta.

"Elizetan, antzokietan nahiz kalean joko dugu, beti ere toki eta egoera bakoitzari egokitutako errepertorio batekin"


“Txatxilipurdi: Iragana, Oraina eta Etorkizuna” liburuxka

Bederatzi urteko esperientzia aisialdi taldeen eredu

“Txatxilipurdi: Iragana, Oraina eta Etorkizuna” izenburupean eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, liburuxka bat argitaratu du Txatxilipurdi elkarteak. Liburu hori Txatxilipurdiren bederatzi urteko esperientzian oinarrituta dago. Urri Urizarrek, elkarteko teknikariak, eta elkarte horren bidea oso gertutik ezagutzen duen Julen Arexolaleibak, Irakasle Eskolako irakasleak idatzi dute.

Urri Urizarrek azaltzen duen moduan “bederatzi urteko esperientzia batu eta bide batez bidean geldionetxo bat egin eta erreflexiorako gune bat sortzearen beharra ikusi genuen. Era berean, aurreantzean heldu beharreko hildo nagusiak erabakitzeke momentu ona zela ere konturatu ginen” eta horregatik ekin zioten aipatutako bi lagunek liburuxka honen mamia osatzeari.

Liburuxka egiteak ekarri dien lana elkartearendako oso



onuragarria izan dela aipatu du Urrik baina ere berean “euskal aisialdi taldeei Txatxilipurdiren esperientzia azaltzeko ederra izango dena-

ren esperantzaz ere gauzatu dugu lana”.

Liburuxkaren ideia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Poli-

tikarako Sailordetzari aurkeztu zioten Txatxilipurdi-koek eta proiektua interesgarriz jo zuten, aisialdi taldeak dirulaguntza jaso zuen beronen gauzapenerako. Liburu osatu ondoren eta Eusko Jaurlaritzaren oneritzia jasota, publikatzea erabaki dute.


Liburuxka bost zatitan banatuta dago: Orain arteko ekintzak: kuantifikazioa. 94. urteko ekintzak: deskripzioa, lortutakoak eta hobetu beharrekoak. Norabide berriak eta ondorioak. Liburuaren tirada 1.000 alekoa izan da eta aisialdi elkarte, euskara elkarte, euskara zerbitzu eta beste hainbat lekura bidali da dohainik.

Liburuaren ekainaren 5ean aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzaren batzar-aretoan eta bertan Josune Ariztondo Akarregi Hizkuntz Politikarako Sailburuordea, Xabier Aizpurua, Ikerketa eta Informazioarako zuzendaria eta Txatxilipurdi elkarteko ordezkariak izan ziren.

LENIZ ALUMINIOAK

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea




~~109.000 pta.~~

101.000 pta.

Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!

Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~

76.000 pta.

Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketak eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

• ESAERA •

“Inbidiotsuak hil daitezke,
baina ibidia ez da sekula
hilko”


MOLIERE

• JEROGLIFIKOA •

in
DIA
DIA
a

Zer du anaia txikiak?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko musika talde bat. 5. Alfabetoko grekoko zazpigarren letra. 8. Zelatan dagoen pertsona. 10. Pirinio-etako mendirik altuena. 11. Kasik. 12. Galzarbe. 14. Lehena eta azkena. 15. Nazka, higuin. 17. Nahigabe egiten den higidura. 19. Tut. 20. Miguel, Bizkaiko idazle ta filosofoa.

Bertikalak 1. Borratu. 2. Ezin ken daitekeena. 3. Diosala, agurra. 4. Dabiden garaiko hebraitar profeta. 5. Eusko Alkartasuna. 6. Hiru adierazten duen aurritzia. 7. (Ald.) Talaiariaren lekua. 9. Aurkitu. 13. (Ald.) Bare, lasai. 16. Bikote. 18. Kristoren aurrekoren laburdura.

• HOROSKOPOA •

Aries Lehenengo zorrak ordaindu eta gero autoa erosi.

Taurus Txalogarria da zure lagunekin duzun jokaera.

Gemini Jendeak ez dizu ulertzen baina zuri bost axola.

Cancer On egingo dizu goizetan limoi ura edateak.

Leo Amodioan porrot egiten ohituta zaude. Gaisoa zu!

Virgo Zuk kontrakoa uste baduzu ere, asko maite zaitu.

Libra Aholkurik onenak etxean jasoko dituzu.

Scorpio Zure bizitza arrunta hankaz gora jarriko da datorren astean.

Sagitaris Gauza mingarriak gertatuko zaizkizu baina baita zoragarriak ere.

Capricorn Gogoratzen duzu aurreko asteko horoskopoa? Igarri dizut, ezta?

Aquarius Tila edan, yoga egin eta gatzik gabe jan.

Piscis Konta iezaiezu lagunei zure arazoak zeintzuk diren.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



Gatazkari buruzko mahaingurua ATBn ekainaren 12an

Euskal Herriko gatazkari irtenbidea ematerik badago?" izenburupean, mahaingurua antolatu da Arrasate Telebistan datorren asteazkenearako, hilak

12. Mahainguruan parte hartuko dutenak EAKo Julian Irizar, EAJko Juan Mari Juaristi, HBko Patxi Zabaleta eta EB-IUko Antton Carrera.

PROGRAMAZIOA



7 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (Errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
9.30etan
Astebete
Gaia: Kartzelako bizitza
Gonbidatua: Ion
Arexolaleiba preso ohiak ia 10 urte kartzeleratuta egon ondoren, han bizi izandako esperientzia kontatuko du.

10 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete (Errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

11 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport (Errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

12 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Barrelekaixoka (Errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mahaingurua: "Gatazkari irtenbiderik ematerik badago?"
Gonbidatuak: Jose Julian Irizar EAtik, Juan Mari Juaristi EAJtik, Patxi Zabaleta HBtik, Antton Carrera EB-IUtik.

13 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Zinea (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Elkartean. Uribarri elkarte

14 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

KOMIKIA



Zagozar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gosoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jergilitikoa:
Inbidia hutsa.

Bertikalak: 1. Ezabatu. 2. Kene-
Taut. 20. Unamuno.
pe. 14. Az. 15. Narda. 17. Tik. 19.
Zelart. 10. Aneto. 11. 1a. 12. Besa-
z. 3. Oles. 4. Natan. 5. EA. 6. Tri.
7. (Ald.) Aialar. 9. Topatu. 13. (Ald.)
Eran. 16. Duo. 18. KA.

Etxebizitzak

- **10 milioi pezeta inguruko etxebizitza erosi-ko nuke.** Tfnoa: 77 00 77.
- **Baserría salgai Gesalibarren.** Dei egin arratsalde edo gauaz 79 97 35 tfnoa.
- **Laredon apartamentua alokagai.** San Juan asteen eta uztailean. Tfnoa: 76 44 34.
- **Ezcaray-en (Errioxa) pisua alokagai** uztaile eta irailan. Kirol instalakuntzekin. Tfnoa: 79 31 56.
- **Peñiscolan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 57 31. Arratsaldeaz.
- **Bergaran baserría salgai** 11.000 m² terrenoarekin. Prezioa: 18.000.000 pta. Tfnoa: 71 63 31.
- **Oñatin etxebizitza eta garajea salgai,** sukaldea, bainugela, 3 logela, egongela... dena berriztua. Prezioa: 13.000.000. Tfnoa: 71 63 31.
- **Castejonon (Nafarroa) pisua salgai.** Tfnoa: (948) 81 40 15.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Guztiz jantzita eta hondartzatik gertu. Tfnoa: 78 14 72.
- **Alokatutako pisu bat osatzeko jendea behar da.** Tfnoa: 79 86 06. Mikel.
- **Pisu bat alokatuko nuke.** Tfnoa: 79 84 40. Aitzol.
- **San Andresen etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 98 73.
- **Laredon apartamentua alokagai** San Juane-tan. Tfnoa: 79 31 47.
- **Bungalowa alokagai Peñiscolan** uztaile eta irailan. Tfnoa: 77 05 88.
- **Garajea alokatuko nuke** Erguin-Larrea auzo inguruan. Tfnoa: 79 41 29.
- **MakatzenaN etxebizitza salgai.** Jantzita, 3 logela, egongela, berogailua... Tfnoa: 79 79 86.

Lana

- **Lanak ordenadorez pasatzen dira.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Emakume euskalduna behar da** umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 06 50. Dei egin 9etatik aurrera.
- **36 urteko andra euskalduna** etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 77 79.
- **Neska prest etxeko lanak egiteko.** Dei egin gauaz 77 07 77 tfnoa.
- **Klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Informatikako 4. mailako ikaslea** OHO, EEE, MsDos, C eta Pascal-eko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 34 58.
- **Andra euskalduna etxeko lanak** egin edo atariak garbitzeko gertu. Tfnoa: 79 39 42.
- **BUP 2. mailako** fisika eta kimikako klase partikularrak jasoko nituzke euskaraz. Tfnoa: 79 66 92.
- **Esperientziadun neska** goizez umeak, pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 44.
- **Ingelesezko klase partikularrak.** Talde txikiak. Esperientzia eta titulazioa. Tfnoa: 77 02 42.
- **Neska gaztea lan egiteko gertu** (sukaldea, etxe garbiketara...). Zuzendu Ferrerías kaleko 30, 2.
- **Emakumea etxeko lanak** egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 67 37 80. Gauaz dei egin.
- **Unzueta jatetxean** (Zabola) sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. Tfnoa: (945) 44 50 95.
- **Klase partikularrak emateko** irakaslea behar da. Kimika eta matematika (UBI). Tfnoa: 79 31 20.
- **Udan OHoko klase partikularrak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz baita umeak zaindu ere. Tfnoa: 77 13 77.

Salerosketak

- **Opel Corsa autoa salgai.** 4361-V. 100.000 pta.tan. Tfnoa: 79 15 07
- **Renault Express 1.1 salgai.** NA-Y. Tfnoa: 79 11 20.
- **Paseorako Orbea txirriindua salgai.** 8.000 pta. Tfnoa: 79 99 82.
- **Kanpingerako karroa salgai.** Sei plazakoa eta egoera onean. Dei egin 20.30etatik aurrera 79 99 53ra.
- **Fagor markako mikrozeramikako plaka berria salgai.** Prezio egokia. Tfnoa: 79 95 79.
- **Komertziorako baliagarriak** diren kristalezko estanteriak salgai. Tfnoa: 79 65 31.
- **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.
- **Citroën AX, SS-AM autoa salgai.** Oso prezio ona eta urtebeteko garantiarekin. Tfnoa: 79 18 18 edo (908) 57 93 86.
- **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-A. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaintuta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Aguerre markako pianoa salgai.** 80 urte ditu. Lan orduetan. Tfnoa: 76 15 58. Juan.
- **Kanpinerako jantzita dagoen** Nissan Vanettea salgai. Tfnoa: 79 03 93.

Denetarik

- **Urrezko pultsera** bat galdu nuen erdigunean edo Eroski inguruan. Tfnoa: 79 84 35. Eskertuko da.
- **Belarritakoak galdu ditut** Kontzeziño kalean. Tfnoa: 79 75 47.

Aste Gazte

Bekak

• Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak (IVEF) 96. urteari dagozkion lankidetzak beketarako deia egin du. Bi motatako beka ongongo dira: a) beka bat euskararen arloan laguntzeko. b) bederatzi beka Erakundeak egingandako programan laguntzeko. Epea: urriak 4.

Lana

• Iruñako Udalak, lanpostu hauek kaleratu ditu. a) Euskara itzultzaile bat. Epea: ekainak 13. b) Soziologo bat. Epea: ekainak 13. c) Zuzenbidean lizentziatu bat. Epea: ekainak 26. d) Gizarte

Langile diplomatu bat. Epea: ekainak 21. e) Ekonomikan lizentziatu bat. Epea: ekainak 21.

• Sesmako Udalak, liburutegiko arduraduna eta kultura koordinatzaile lanpostu bat deitu du. Goi batxilergoa, LHII edo balio-kidea izatea eskatzen da. Epea: ekainak 17.

Ikastaroak

• "Arrasate 96 Udako Kirol Kanpaina". Eskalada, espeleologia, mendiko bizikleta, urazpiko kirola, arkuzko tiraketa... Gazte zerbitzuak, 1.000 pta. - 1.500 pta. ko subentzia emango du piraguismoan edo txangoan par-

te hartzen duten ikasle zein langabetuei. Bi txanda: a) ekainaren 27tik uztailearen 10era. b) uztailearen 11tik 23ra.

Lehiaketak


• Urretxu eta Zumarragako Udalek, lehiaketa sorta hau antolatute. XII. Bertso-paper lehiaketa, XII. Narratiba lehiaketa, IV. Poesia lehiaketa, VIII. Komiki lehiaketa, VIII. Pintura lehiaketa eta Argazki lehiaketa. Guztien epea: irailak 13.

• "Enpresak Eratzeko Gazteendako XI. ideia lehiaketa". 18tik 30 urte artekoek zuzenduta. Sariak: 1.100.000 pta. zuen ideia irabazte suertatzen bada eta sozietatea eratzten baduzue 2.500.000 pta. arterainoko saria. Epea: irailak 20.

"Etxe frankotan alderantzikatu egin da orain dela 40 urtekoa: orduan gurasoek zuten aginpidea, eta orain seme-alabek".

**BERNABE TIERNO
PSIKOLOGOA,
"EGUNKARIA"**

**Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

DERMATOLOGIA

ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1	☎79 72 16
---	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

OTORRINOLARINGOLOGIA

ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....	☎79 20 18
---	-----------

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
---	-----------

Laster zuekin!

Sofa
leku

a. eme. interiores, Garibai, 9
centro hogar muebles, Zigarrola, I
sofa-leku, Zigarrola, I
Tfnoak: 79 15 03 - 77 14 92

grupo

**Amuebladora
Mondragonesa**